

Ezpalak

JON TORNER

Txotxongiloak protagonista Bilbon, Tolosan eta Sestaon

BILBOKO, TOLOSAKO ETA SESTAOKO nazioarteko txotxongilo jaialdiak hil honetan izango dira. Bilboko 7an hasi zen eta 21a arte iraungo du, Tolosako Titirijai jaialdia hilaren 29tik abenduaren 8ra bitartean egingo da eta Sestaokoa hilaren 17tik abenduaren 1a arte. Mundu osoko txotxongilo taldeen emanaldiez gain, erakusketak, hitzaldiak, ikastaroak eta proiektzioak izango dira. Bilbon, adibidez, Pepe Otal titiriteroaren omenezko erakusketa paratu dute Barrainkuako kultur etxean, eta Tolosako Aranburu jauregian Errusiako txotxongiloen historia jasoko duen beste bat zabalduko dute.



Jokin Muñozen 'Antzararen bidea' nobelak irabazi du Euskadi Saria

JOKIN MUÑOZEK (Castejon, 1963) irabazi du euskarazko literatura arloko Euskadi Saria, *Antzararen bidea* (Alberdania) eleberriarekin. Itzulpengintzako saria berriz Josu Zabaletak (Legazpi, 1948) jaso du, Gesualdo Bufalino idazle italiarraren *Gaueko gezurrak* (Alberdania-Elkar) nobelari esker. Bigarren irabazi dute biek Euskadi Saria: 2004an Muñozen *Bizia lo* liburua saritu zuten, eta 2001ean Zabaletak egindako Guy de Maupassant-en *Fantasiatzko ipuinak* lanaren itzulpena. Hilaren 18an jasoko dute 18.000 euroko saria, lehendakaritzan (Gasteizen) egingo den ekitaldian. Pello Añorga haur eta gazte literaturako eta Manuel Leginetxe gaztelaniazko literatura arloko Euskadi Sarien irabazleak ere han izango dira.

Fermin Muguruzak munduko 14 hiritara eraman duen musika estudioan jaso ditu *Asthmatic Lion Sound System* diskoaren (Talka) oinarri diren grabazioak. Musikari askok parte hartu dute musika beltza nagusi den lan berrian eta instrumentu, soinu eta ahotsen sanpleatuak Zigor Lampre DZ dj-ak egin ditu.

Tanttaka eta Albena antzerki konpainiek Jose Antonio Portillo eta Patxo Telleriaren *Denboraren museoa* obra estreinatuko dute Donostiako Victoria Eugenia antzokian, azaroaren 17tik 20ra eta 24tik 26ra bitartean. Portillok eta Telleriak idatzitako *El Museu Del Temps* antzezlan du oinarritzat, eta mundu osoko haurren istorio eta ametsak dira kontakizunaren ardatzak. Jose Ramon Soroz, Santi Antero eta Carmelo Moreno dira aktoreak.

Antonio Ortiz Echagüe

artistaren (Guadalajara, Espainia, 1883 - Buenos Aires, Argentina, 1942) 63 margolan daude ikusgai Donostiako Kutxa Boulevard erakusketa aretoan. Haren gurasoak Donostian bizi ziren, eta Ignacio Zuloaga eta Joaquin Sorollarekin batera, garai hartako sortzaile esanguratsuenetako bat da.



Cantemus Mixed Choir abesbatza hungariarrak irabazi du Tolosako 40. Nazioarteko Lehiaketako sari nagusia. Horri esker, datorren urteko maiatzaren 30ean Toursen (Frantzia) izango den Europako Sari Nagusian Tolosako lehiaketa ordezkatu du. Horrez gain, ahots mistoen modalitatean ere nagusitu da Hungariako abesbatza, bai folklore atalean eta bai polifonian.

● **Mariasun Landa idazleak Euskonews & Media webgunean, euskal literaturan emakumeak gaur egun duen protagonismoaz:** «Oso baikor ikusten dut panorama. Ikusten ditut neska gazte batzuk idazle onak datozela, eta pentsatzen dut txikitatit hezi direla berdintasunean eta unibertsitatez ere heldu direla modu berean. Aukera hori zabalduz joango da. Bai, emakume idazleak sortuko dira, gero eta gehiago. Zailago

ikusten dut, dena den, emakumeek nola uztartu hemengo euskal sistema literarioan, gizonezko idazleen artean sare batzuk daudelako, sare moduan funtzionatzen dutenak eta ez dakit noraino emakume idazle gazte horiek onartuak izango diren, onartuta baldin badaude, eta zer prezioetan. Edo baztertuak geratuko diren eta emakumeen arteko beste sare batzuk eraiki beharko genituzkeen. Gauza asko ikusteke daude oraindik».

● **Patri Urkizu literatura irakasleak Berrian:** «Euskal antzerkiari buruzko azterketa sakon eta zehatza falta da. Nolanahi ere, tesi asko beharko lirake, esaterako, errepublikako garaia soilik egoki aztertzeke (...) Antzerki serioaren eta komertzialaren arteko dialektika dagoela iruditzen zait. Oro har, antzezle onak daudela iruditzen zait, baina maiz arazoa gidoieta eta mezuan dago. Alor horren kalitate zaintzea egiteko zaila da».

Abarak

MIKEL GARCIA

Zerk egiten du faxismoa erakargarri?

Die Welle. Zuzendaria: Dennis Gansel.
Aktoreak: Jurgen Vogel, Frederick Lau, Max Riemelt,
Jennifer Ulrich. Alemania. 101 minutu.

ALEMANIARRREK zergatik argudiatu zuten ezjakintasuna judutarrek pairatutako masakrearen aurrean? Ikaslearen galdera horri erantzuteko, Palo Alto Kaliforniako institutuko historia irakasleak esperimendua abiatu zuen 1967an: diziplina zorrotzeko erregimena ezarri eta indibidualtasuna ezabatu zuen ikasgelan, autokraziaren boterea erakutsi nahian. Saiakera bosgarren egunean bertan behera utzi behar izan zuen, egoerak eskuetatik alde egin ziola ikusirik. Izan ere, ikasleak elkarren zelatan hasi ziren, taldearekin bat egin nahi ez zutenak salatuz eta erasoz.

Esperientzia erreal hura oinarri hartuta, egungo Alemaniako ikastetxe batean kokatu du istorioa Dennis Ganselak. *Die Welle* (Olatua) pelikulan, irakaslea da ikasleei galdera egiten diena: "Alemanian beste diktadura bat egotea ezinezkoa dela uste duzue?". Talde

bateratua osatuko dute ikasgelan, janzkera, lema eta arau zehatzekin, eta gehienak erakarriko ditu taldeak, ez duelako axola nor eta nolakoa zaren, pentsamendua eta portaera bera izatea baino.

Zerk egiten du faxismoa erakargarri? Egungo sistema politikoari gain harturik III. Reich-a bueltatu ahalko litzateke? Filmak eztabaida sakona piztu du Alemanian. Dagoeneko 2,5 milioi lagunek ikusi dute eta ikastetxetan proiektatu dute. Euskal Herriko aretoetara hil bukaeran iritsiko da eta ziur gurean ere zeresana emango duela. Gansel zuzendariaren ustez, sistema autoritarioek psikologikoki seduzitzen dute herritarra, mundu konplexuari erantzun sinplea ematen diote. Halaber, arazo ekonomikoak daudenean talde neonaziek indarra hartzen dutela dio, herrialde germaniarrean hala gertatu baitzen duela urte batzuk. Ikusi beharko da krisi ekonomikoak horretan ere eragiten duen.



FINALA
Azaroaren 15ean,
Donibane Loizunean,
Jai Alai pilotalekuan
17:00

Zatoz bertsularitzaren festara!

Bertsulari
Kapelketa

BERTSULARIEN LAGUNAK ELKARTEA

Bazkaria: Lekuan berean, "Ereintabil" Donibaneko Ikastolako guraso elkarteak bazkaltzeko aukera emanen du. Erreserbak egiteko:
05 59 54 07 86 (iparraldeko)
00 33 559 54 07 86 (hegoaldeko)